

BESTELAKO XEDAPENAK

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

2832

EBAZPENA, 2021eko apirilaren 28koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, Euskadiko toki-administrazio publikoaren energia-jasangarritasuna hobetzeko azterlanak eta auditoriak egiteko laguntzen programaren oinarri arautzaileak onartzen, deialdia egiten eta argitaratzen dituen.

Energiaren Euskal Erakundea Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren menpeko zuzenbide pribatuko erakunde publikoa dugu, eta bere gain hartzen ditu aurrezpena eta energia-efizientzia, energia-baliabide berriztagarriak, energia-dibertsifikazioa eta energia-azpiegituren sustapena bultzatzera bideratutako jardunak, betiere EAE Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan.

Horri dagokionez, 2030erako 3E-2030 Euskadiko Energia Estrategian bildutako helburuak betetzera bideratutako hainbat ekintza garatzen ari da Energiaren Euskal Erakundea. Jardun horien artean aipatzekoak dira laguntzen zenbait programa, zeinen bidez energia-efizientzia eta energia-berriztagarrien aprobetxamendua sustatu nahi baita jarduera-sektore guztietan.

Horrenbestez, aurrezpena eta energia-efizientzia, eta, horrekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden instalazio eta eraikin publikoetan energia berriztagarrien erabilera jomuga duten ekintzak identifikatu eta sustatzeko lehentasunezko helburuarekin diseinatu da laguntzen programa hau.

Azaldutako guztia dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Energiaren Euskal Erakundearen zuzendaritza-organoen eginkizunak arautzen dituen martxoaren 5eko 64/1985 Dekretua bigarrenez aldatzen duen otsailaren 3ko 10/2015 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, Euskadiko toki-administrazio publikoaren energia-jasangarritasuna hobetzeko azterlanak eta auditoriak egiteko laguntzen programaren oinarri arautzaileak eta dagokion deialdia onartzea (programaren edukia ebazpen honen eranskinean jasota dago).

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik argitaratzea Euskadiko toki-administrazio publikoaren energia-jasangarritasuna hobetzeko azterlanak eta auditoriak egiteko laguntzen programaren oinarri arautzaileak onartzen dituen ebazpen hau, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren antolarauerei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikuluari jarraikiz.

Hirugarrena.– Ebazpen honek bide administratiboa agortzen du; hortaz, haren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio EEEko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena EHAAr argitaratu eta biharamunetik hasita; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Bilboko Administrazioarekiko Auzien Auzitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena EHAAr argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bilbao, 2021eko apirilaren 28a.

Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,
IÑIGO ANSOLA KAREAGA.



ERANSKINA

Euskadiko toki-administrazio publikoaren alorrean energia jasangarritasuna hobetzeko azterlanak eta auditoriak egiteko laguntza programa

Oinarriak



Euskadiko toki-administrazio publikoaren alorrean energia eraginkortasuna hobetzeko azterlanak eta auditoriak egiteko laguntza programa

1. Programaren helburua, deskribapena eta dirulaguntzen izaera

- 1.1. Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Jasangarritasunari buruzko 4/2019 Legeak, otsailaren 21ekoa, (aurrerantzean «4/2019 Legea») toki-administrazio publikoaren alorrean energia-jasangarritasunaren oinarri arautzaileak ezartzen ditu, energia eraginkortasunaren, energiaren aurrezpenaren eta energia berriztagarrien erabileraren aldeko neurriak sustatuz.

Ildo horretatik, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, 2030eko Euskadiko Energia Estrategian (3E-2030) nabarmentzen denez, Eusko Jaurlaritzaren energia politikaren helburuekin bat etorritik, behar den bultzada publikoaren bidez, honako misio hau gauzatzen laguntzen du: energiaren kontsumoan eraginkortasuna areagotzen, energia sistema lehiakorrago, seguruago eta jasangarriago lortzen, ingurumen eragina edo inpaktua gutxitzen, kontsumitzeko energia gutxiago erabiltzen eta kanpoko baliabideen mendekotasuna murrizten.

Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean «EAE») instalazio eta eraikin publikoetan energiaren aurrezpena, eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera sustatzeko jarduerak diruz laguntzea da programa honen helburu nagusia, eta hartara, argitaratzen da Euskadiko toki-administrazio publikoaren alorrean energia jasangarritasuna hobetzeko azterlanak eta auditoriak egiteko laguntza programa hau (aurrerantzean «laguntza programa»).

- 1.2. Diru laguntza orokorrez diharduen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua arabera (aurrerantzean «LGS»), Energiaren Euskal Erakundearen (aurrerantzean «EEE») 2021eko otsailaren 24an egindako bileran, EEEren Zuzendaritza Kontseiluak erabaki zuen, besteak beste, 2021eko EEEren Diru Laguntzen Plan Estrategikoa onartzea, besteak beste, programa hau.

2021eko EEEren Diru Laguntzen Plan Estrategikoa eskuragarri dago honako helbide honetan: <https://www.eve.eus/Corporativo/Portal-de-Transparencia/EVE?lang=eu-es>

- 1.3. Laguntza programa honen barruan ematen diren diru laguntzak itzuli beharrik gabeko diru laguntzak dira.
- 1.4. Laguntza programa hau eta bere aplikazioaren ondorioz ematen diren diru laguntzak bateragarriak dira barne-merkatuarekin, Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. artikulua 3. atalean xedatzen denari jarraiki, Itun horren 108. artikuluan adierazten den batzordeari jakinarazi beharretik salbuetsita egonik.

Laguntza programa honetan aurreikusten diren diru laguntzak, izaera orokorrarekin, Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 Araudiaren barruan daude, minimis laguntzez diharduen Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioari dagokionez (aurrerantzean **1407/2013 Erregelamendua**), baita Batzordearen 2012ko apirilaren 25eko 360/2012 Araudiarena ere, minimis laguntzez diharduen interes ekonomiko orokorrerako zerbitzuak ematen dituzten enpresentzat Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioari dagokionez (aurrerantzean **360/2012 Erregelamendua**).

- 1.5. Laguntza programa honen arabera, 1407/2013 Erregelamenduan xedatzen denez:

Enpresatza hauxe hartuko da: *Jarduera ekonomiko bat gauzatzen duen edozein entitate enpresa kontsideratuko da, bere forma juridikoa eta finantzabidea edozein izanda ere.*

Enpresa bakartzat hauxe hartuko da: jarraian aipatzen diren loturen artean bat, gutxienez, duten elkarte guztiak.

- a) Enpresa batek beste enpresa baten akziodunen edo bazkideen boto eskubideen gehiengoa badu.
- b) Enpresa batek beste elkarte baten administrazio, zuzendaritza edo kontrol organoko kide gehienak izendatzeko edo kentzeko eskubidea badu.



c) Enpresa batek beste enpresa batean eragin nagusia edo menderatzailea ezartzeko eskubidea badu, harekin sinatutako kontratu baten ondorioz, edo bigarren enpresaren estatutu-klausularen batek eraginda.

d) Enpresa batek, beste enpresa baten akzioduna edo elkartua, bigarren enpresaren akziodun edo bazkideekin izenpetutako akordio baten bidez, haren akziodunen boto eskubideen gehiengoa kontrolatzen badu bakarrik.

Enpresek lehen paragrafoan aipatzen diren a) eta d) letretako erlazioetako bat izanez gero, beste enpresa baten edo batzuen bitartez, enpresa bakartzat ere hartuko dira.

2. Onuradunak

2.1. Laguntza programa honek arautzen dituen diru laguntzen onuradunak hauek izan daitezke:

a) Kontzejuak, bazkunak, batzar administratiboak eta maila apalagoko lurralde beste toki erakunde batzuk.

b) Udalerriak.

c) Udalerrien mankomunitateak, Arabako Lurralde Historikoaren kuadrillak eta beste toki erakunde batzuk, toki erregimenaren oinarritzko legerian eta Euskadiko 2/2016 toki erakunde legean ezarritakoaren arabera.

d) Toki erakunde horiekiko harremanak edo menpekoak diren organismo publikoak.

e) Udal enpresa publikoak, zeinetan kapital soziala atal honetan aurreikusten duten erakundeen partaidetza zuzena edo zeharkakoa ehuneko 50 baino handiagoa bada.

f) Fundazioak, sortzeko patronoa toki erakundea denean, edo patronatoan gehiengoz nagusitzen direnak toki erakundeko ordezkariak badira.

g) Partzuergoak, baita era guztietako erakunde instrumental guztiak, nagusiki toki kapital publikoa partaidetza dutenak, edo gehiengoa toki erakunde batena bada.

2.2. LGSen13. artikuluan xedatzen diren eskakizunen arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorraren Antolamendu Printzipioen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegilearen (aurrerantzean «**1/1997 Dekretu Legegilea**») 50. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, honako pertsona edo entitate hauek izan daitezke onuradunak: diru laguntza emateko eskatzen diren egoeran daudenak, edo oinarri hauetan eta deialdian aurreikusten diren baldintzak betetzen dituztenak.

Pertsonak edo erakundeek, onuraduna izateari begira, debekurik ez dutela justifikatzeko honako era honetan egin daiteke: LGSen 13.7 artikuluan eta 1/1997 Dekretu Legegilearen 50.6 artikuluan aurreikusten diren prozeduren bitartez.

2.3. Honako hauek ezin izango dira onuradunak izan:

a) LGSen 13.2 artikuluan aurreikusten diren egoeraren batean direnak, besteak beste, honako hauek:

- Zerga betebeharrak eguneratuak ez izatea; baita Gizarte Segurantzakoei loturikoak ere.
- Diru laguntzen itzulketa betebeharrak eguneratuak ez izatea.
- Zigortuta ez izatea, legez edo administratiboki, diru laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukerei dagokienez, edo horretarako legezko debeku prozesuren batean izatea.

b) 1/1997 Dekretu Legegilearen 50.5 artikuluan xedatzen diren egoeraren batean dauden eskatzaileak.



- c) 1407/2013 Erregelamenduaren 1. artikuluan azaltzen diren sektore batean edo batzuetan diharduten enpresak eta 360/2012 Erregelamenduarenak.
- d) Emateko diru laguntzaren bat berreskuratzeari begirako agindu baten zain daudenak, Europako Batzordearen alde aurreko erabaki baten ondoren, diru laguntzaren bat barne merkatuarekin legez kanpoko edo bateraezina deklaratu gero.
- e) Eusko Legebiltzarrak onartu zuen Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutuna, abenduaren 28ko 14/2007 Legea betez, enpresaren helburu sozialen edo jarduketan artean, osorik edo alde, armen ekoizpen merkaturatze eta finantzaketa bada.

2.4. Onuradun izateari begira, aurreko paragrafoetan azaltzen diren eskakizunei eustea eta betetzea, diru laguntza eskaera aurkezten den egunetik diru laguntza emateko prozedura amaitu arte.

3. Aurrekontuaren zenbatekoa eta eskabideak aurkezteko epea

Programa honi esleitutako diru-saila edo aurrekontua **hamar milioi (10.000.000) eurokoa** da; betiere, horretarako EEE Energiaren Euskal Erakundearen aurrekontuetan ezarritako kredituaren arabera, 2021-2023 aldirako.

Euskal Herriko Agintaritzako Aldizkarian (aurrerantzean «**EHA**») oinarri hauek argitaratzen diren egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea laguntza programa honen kontura, eta laguntza programari esleitutako diru-saila agortzen denean amaituko da.

Nolanahi ere, aipatutako aurrekontua agortu zein ez agortu, 2023ko ekainaren 30ean izango da azken eguna diru laguntza eskabideak aurkezteko.

Epeak zenbatzeari begira, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 30. artikuluan xedatutakoa beteko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideaz diharduena (aurrerantzean **39/2015 Legea**).

Aurrekontuaren bukaeraren edo agortzearen berri emango da EHAAn nahiz Interneteko EEEren helbide honetan: www.eve.eus

Laguntza programa honen arabera, diru laguntza eskabide osoak, era zuzenean aurkeztuta, eta bideratzen egongo diren arren, bazter egingo dira, baldin eta esleitutako aurrekontua amaitzen bada, EEEko zuzendari nagusiak emango duen ebazpenaren bidez, bukatu aurretik aurrekontua handitzea erabaki ezean, eta azken kasu hau gertatuz gero, bideratzen edo tramitatzen jarraituko da.

4. Diruz lagunduko diren jarduerak

Laguntza programa honen kontura diruz lagunduko diren jarduerak **4. oinarri** honetan zehaztutakoak izango dira, EAEn burutuak eskatzailearen aldetik; betiere baldintzak hauek betez:

- a. Jarduera 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera egiten bada, egintzat hartuko da kontratistarekin sinatutako kontratuaren data eta data 2021eko urtarrilaren 1ekoa edo aurreragokoa bada.
- b. Jardueraren gauzatzea, fakturazioa eta ordainketa hamabi (12) hilabeteko gehieneko epean egin eta justifikatzen bada, diru laguntza emateko ebazpenaren jakinarazpenaren datatik kontatzen hasita, eta beti ere, 2023ko urriaren 16a baino lehen.

Programa honen kontura diruz lagundu daitezkeen jarduerak hauek dira:

a) Kanpoko argiteria publikoaz energia auditoriak

Kanpoko argiteria publikoei lotutako instalazioen energia eraginkortasun auditoriak, 4/2019 Legearen 13. artikulua eskatzen duena betetzeko xedez.



Auditoriaren irismenak, era orientagarrian, honako informazio hau jasoko du:

- Sarrera, helburua eta irismena.
- Aplikagarria zaion araudiaren laburpena eta erreferentziako erakundeen gomendioak.
- Instalazioen deskribapena.
 - Kokapen planoak.
 - Argien eta ekipoen identifikazioa.
 - Argien mailen ebaluazioa.
 - Kontrol eta erregulazio sistemen deskribapena.
 - REBT-en eta REEIAE-ren betetzearen ebaluazioa.
- Energia elektrikoaren fakturaren azterketa (tarifen egitura, kontsumoak eta kostuak).
- Argiteria hobetzeko proposamenak eta berauen ebaluazio tekniko-ekonomikoa.
 - Proposatutako aldaketen deskribapena.
 - Lortutako energia eta diru aurrezpena.
 - Egiteko inbertsioaren aurrekontua eta aurreikusten den inbertsioaren berreskurapen aldia.
- Proposamenak lehenestea, irizpide teknikoen eta ekonomikoen arabera. Sintesia eta ondorioak.

b) Eraikinen eta energia instalazioen energia auditoriak

Herri administrazioaren jabetzako eraikin baten edo batzuen energia auditoriak egitea, 4/2019 Legearen 13. artikulua eskatzen duena betetzeko xedez.

Auditoriaren irismenak, era orientagarrian, honako informazio hau jasoko du:

- Auditorian aurreikusten den eraikin bakoitzaren hasierako egoeraren azterketa, horren barruan sartuko da eraikinaren erabilerak ere.
 - Inguratzaile termikoaren deskribapena.
 - Berokuntza eta hozten sistemen deskribapena.
 - Argiztapen sistemen deskribapena.
 - Sistema bakoitzerako ekipo nagusien zerrenda.
- Auditorian aurreikusten den eraikin edo instalazio bakoitzaren energia kontsumoa. Gainera, honako informazio hau ere emango da:
 - Erabiltzen den energia mota bakoitzaren energia kontsumoa.
 - Urtebeteko hileroko kontsumoaren kurba, energia motaren.
 - Orduko elektrizitate kontsumoaren kurba, gutxienez astebetekoa.
 - Erabiltzen den energia mota bakoitzaren energia faktura.
 - Elektrizitate fakturaren azterketa.
 - Energia kontsumoen banaketa, deskribatutako energia ekipamendu motaren arabera.
- Eraikinaren energia jasagarritasuna hobetzeko jardueraren proposamenak, proposatzen den jarduera bakoitzean hauxe zehaztu beharko da:
 - Haren deskribapena.
 - Lortutako energia eta diru aurrezpena.



- Energia baliabide berriztagarrien aprobetxamendua.
- Egiteko inbertsioaren aurrekontua.
- Sintesia eta ondorioak.

Energia auditoriekin batera, eraikinen energia ziurtapenak egiteko aukera ere izango da. Ziurtapena 235/2013 Errege Dekretuak xedatutako irizpideen arabera egingo da.

c) Energia jasangarritasunaren aldeko jarduteko plana, 4/2019 Legearen esparruan

Herri administrazioaren jabetzako eraikinetan, instalazioetan eta ibilgailuetan energia jasangarritasunaren aldeko jarduteko plana egin beharko da 4/2019 Legearen 14. artikulua eskatzen duena betetzeko xedez.

Jarduteko plana, era orientagarrian, honako irizpide hauen arabera egingo da:

- Irismena, gutxienez, 2030. urtera artekoa izango da.
- Egungo egoeraren diagnostikoa, horren barruan hauxe azalduko da:
 - Planean sartutako eraikinen, instalazioen, argiteria publikoaren eta ibilgailuen inbentarioa, baita bakoitzaren energia kontsumoa eta energia kalifikazioa ere.
 - Kokalekua.
 - Eraikin, instalazio edo argiteria publiko linea bakoitzari lotutako kontsumo-guneen identifikazioa (CUPS).
 - Ibilgailuen zerrenda: matrikula, marka, modeloa, erabiltzen den erregaia, kilometroak...
 - Urteko energia kontsumoen identifikazioa, bai oinarri urtekoa, bai inbentarioa egiten den aurreko urtekoa.
 - Eraikinak.
 - Instalazioak.
 - Argiteria publikoa.
 - Ibilgailu-flota.
 - Oinarri urtearen identifikazioa, 4/2019 Legearen 16. artikuluan ezartzen diren helburuen kalkuluarekin bat etorritik.
 - Hobetzeko proposamenen laburpena, haien inbertsioak, energia eta diru aurrezpenak eta inbertsioen berreskurapen aldia, egindako auditorien emaitzen arabera:
 - Energia kudeaketa eta monitorizazioa.
 - Bero sorgailuak eta hotz sorgailuak (klimatizazioa); erregaien aldaketa.
 - Energia berriztagarrien erabilera (fotovoltaikoa, biomasa, eguzki termikoa, geotermia edo aerotermia bidezko bero ponpak, eolikoa).
 - Inguratzaile termikoak.
 - Argiztapena.
 - Beste neurri interesgarri batzuk, energia aldetik.
 - 2030. eta 2050. urtera begira, energia kontsumo globala murrizteko eta energia berriztagarriak ezartzeko helburu orokorrak, baita kategorien arabera ere (eraikinak, instalazioak, argiteria publikoa barne, ibilgailuak).
 - Energia kudeaketa eta monitorizazioa.



- Monitorizazio edo energia kudeaketa planak.
- Energia eraginkortasun, energia berriztagarrien ezarpen eta mugikortasunaren inguruan aurreikusten diren neurriak:
 - Egutegia.
 - Aurreikusitako inbertsioak.
 - Lortutako energia eta diru aurrezpena.

d) Hiri mugikortasun jasangarriaren aldeko planak

Hiri mugikortasun jasangarriaren aldeko planaren xedea da aldaketa eragitea, energia gutxiago kontsumitzen duten garraiobideak erabiltzeari begira egin beharko da 4/2019 Legearen 24. artikulua eskatzen duena betetzeko xedez.

Mugikortasun planaren gutxieneko edukia hauxe izango da:

- Hasierako egoeraren diagnostikoa eta aurreikusten diren mugikortasun aldagaien nondik norakoa: horren barruan, gutxienez, aspektu hauek azalduko dira:
 - Aparkalekuen kudeaketa.
 - Garraio publikoaren eskaintza.
 - Bide-sare nagusiaren antolaketa.
 - Mugikortasunaren banaketa modala.
 - Mugikortasun inguruneen eta oztopoen existentzia.
 - Garraioaren kudeaketa jarduera zentro handietara.
 - Mugikortasunaren kudeaketa jarduera zentroi lotutako aspektuetan.
 - Salgaien banaketa hiri inguruan.
 - Publikoarentzako eskuragarri diren erregai alternatiboak kargatzeko eta hartzeko guneen erabilgarritasuna.
 - Bizikletak maileguan hartzeko sistema publikoen erabilgarritasuna.
- Helburu orokorren definizioa, horren barruan honako hau kontuan hartuta: mugikortasun eraginkorra, bai energia aldetik, bai mugikortasunaren oztopoak saiheste aldera, garraio kolektibo sareetara irisgarritasuna auzo guztietatik, hiriguneak oinezkoentzat egokitzea eta zirkulazioarekiko kolektibo zaurgarrientzako aisialdiari begira, gune seguruak eratzea.
- Helburu zehatzen definizioa, planaren helburu orokorren ildotik joateaz gain, kuantifikagarriak, neurgarriak eta denbora tarte zehatza ere eduki beharko dituzte. Helburu zehatz bakoitzak adierazle elkartu bat izango du, zeinetan hasierako datuaren bidez, betetze maila ziurtasunez ezagutzea ahalbidetuko duena.
- Jarduteko plana. Definitutako helburu zehatzak gauzatzeko ekintzak edo proiektuak azalduko dira, aurrera eramateko epeak zehaztuz eta jarraipena, ebaluazio eta berrikuspene egiteko prozeduren nondik norakoak jakinaraziz.

Jarduerak edo ekintzak honako alor hauei loturik daude:

- Sartzeko eta aparkatzeko erregulazioa eta kontrola hiri-guneetan, eta pixkanaka garraio pribatua gutxitzeko beste neurri batzuk.
- Garraio publikoari lotutako modu guztien eskaintzaren garapena eta hobekuntza, bai eta udalaren esku dagoen garraio azpiegituren ustiapena ere.



- Garraio publiko mota guztiak eta beren intermodalitatea garatzeko neurriak, integrazio instituzional, tarifaria eta fisikoa sustatzeko.
 - Hiri-guneetatik kanpo aldeko edo metropoli eremuko geltokietan edo geralekuetan aparkaleku disuasorioak bultzatzea.
 - Erregai alternatiboak sustatzea, publikoarentzako eskuragarri diren kargatzeko eta hartzeko guneen ezarpenen bidez.
 - Bide-sare nagusiaren antolaketa eta ustiapena, garraio modu guztiei dagokienez.
 - Oinez eta bizikletaz ibiltzea bultzatzea, espazioak edo erreserbak eratuz eta oztopo arkitektonikoak baztertuz; hartara, oinezkoak eta bizikletak ingurune egoki, seguru eta atsegina izango dute.
 - Erabilera partekatuen autoak sustatzea.
 - Dauden eta aurreikusten diren jarduera zentroei lotutako mugikortasun gaien kudeaketa.
 - Salgaien karga, deskarga eta banaketaren erregulazioa hirigunean inguruan.
- Ondorioak.

e) Energia jasangarritasunaren inguruko bideragarritasun azterlanak eta proiektuen prestaketa

Ekipo, instalazio edo sistemen gaineko bideragarritasun azterlanak egitea, aurreproiektuak eta proiektuak prestatzea, onuradunei 4/2019 Legeak ezarritako helburuak betetzen laguntzeko asmoz. Irismena, egindako azterlanaren arabera, era orientagarrian era honetakoa izango da:

- Oraingo egoeraren diagnostikoa.
- Alternatiba guztien azterketa eta hautaketa justifikagarria.
- Hautatutako alternatibaren definizioa, hauexek azalduz:
 - Instalazioen ezaugarri teknikoak, diagramak, espezifikazioak eta abar adieraziz.
 - Eskuragarri dauden espazioetara egokitzapena, planoak barne.
 - Inbertsioak eta ustiapen gastuak.
 - Errentagarritasunari buruzko azterketa.
 - Ingurumen azterlanak, beharrezkoak izanez gero.
 - Segurtasun eta higiegi azterlanak, beharrezkoak izanez gero.
 - Prestakuntza beharrak.
 - Gauzatzeko kronograma orientagarria.
- Ondorioak eta gomendioak.

5. Kostu lagungarria

Oinarri honetan aurreikusten denaz gainera, aplikagarria izango zaio LGSen 31. artikuluan eta RGLSen 83. artikuluan xedatutakoa.

5.1. Kostu lagungarriaren mugak

Diruz lagunduko diren jardueren barruan, kostu lagungarriak hauexek izango dira: jarduerak era zuzenean egiteko lan beharrezkoen kostuak, baita horiek gauzatzeko informazioaren bilketa, bisitak, neurketak, kalkuluak, bisiten eta dinamiken antolaketa eta dokumentuan idazketa ere.



Gainera, honako hau ere kontuan hartuko da:

- Material eta esku lanari lotutako sail ekonomiko guztiak diruz lagunduko den jarduerari esleitu edo egotzi beharko zaizkio zuzenki.
- Kostu lagungarriak zerga-kenkariak edo beste zerga batzuk kontuan hartuta adieraziko dira.

5.2. Kostu lagungarriaren barruan sartuko ez diren jarduerak

- Azterlanak eta auditoriak egiteko ordaindu den BEZa, eta, oro har, beste tasa edo zerga batzuk.
- Jardueraren kostuen ondoriozko finantza gastuak.
- Pertsonal propioari dagozkion gastuak.
- Zerbitzariak, inprimagailuak eta, oro har, ekipo ofimatiko guztiak.
- Eta, orokorrean, behar bezala zehaztu eta definitu gabeko kostu guztiak, eta ondorioz, era zuzenean identifikatzea ezinezkoak izango direnak, laguntza programa honetako **4. oinarrian** aurreikusten diren jardueren helburuak lortzeari begira.

6. Diru laguntzen zenbatekoa eta laguntzei mugaketa orokorrak

6.1. Diru laguntzen zenbatekoa

Programa honetako **4. oinarrian** azaldutako jarduerak diru laguntza hauek izango dute:

- Kostu lagungarriaren % 80, enpresatzat hartzen ez diren onuradunentzat, 1407/2013 Erregelamenduaren arabera.
- Kostu lagungarriaren % 50, enpresatzat hartzen diren onuradunentzat, 1407/2013 Erregelamenduaren arabera.

Bideragarritasun azterlanak eta proiektuen prestaketa (**4. oinarriko e atala**) izeneko kasu zehatzari dagokionez, azterlaneko gehieneko kostu lagungarria 15.000 eurokoa da, eta kostu lagungarriaren % 50 izango da diru laguntzaren ehunekoak.

6.2. Diru laguntzen zenbatekoaren muga

Onuraduneko gehieneko diru laguntzak, eskaera kopurua eta bere irismena gorabehera, ez dira jarraian azaltzen diren zenbatekoak baino handiagoak izango:

- 2.1 oinarrian adierazten diren udalerrriak eta gainerako onuradunak, udalerrri bakar baten partaidetza osoa dutenak:

Udalerrriaren biztanle kopurua	Gehieneko kostu onuraduneko
1.000 baino gutxiago	15.000,00 €
1.000 edo gehiago eta 5.000 baino gutxiago	45.000,00 €
5.000 edo gehiago eta 20.000 baino gutxiago	75.000,00 €
20.000 edo gehiago eta 50.000 baino gutxiago	110.000,00 €
50.000 edo gehiago eta 100.000 baino gutxiago	145.000,00 €
100.000 edo gehiago	200.000,00 €

- Udala baino handiagoko toki erakundeak eta 2.1 oinarrian adierazten diren gainerako onuradunak, udalerrri baten partaidetza baino gehiago dutenak, kontuan hartuko da erakunde eskatzailean parte hartzen duten udalerrri guztien biztanle kopuruaren batukaria, onuraduneko gehieneko diru laguntzaren zenbatekoa finkatzeari begira.



c) Udala baino txikiagoko toki erakundeen kasuan, erakunde eskatzaileari dagokion udalerrriaren biztanle kopurua hartuko da kontuan, eta onuraduneko gehieneko diru laguntzaren zenbatekoa goiko taulan ezarritako zenbatekoen % 40 izango da.

Udalerriri dagokion biztanle kopurua kalkulatzeko, Eustaten webgunean argitaratutako azken informazioa hartuko da kontuan.

6.3. Diru laguntzen zenbatekoaren muga zehatza (europar araudia)

Enpresatzat hartzen diren onuradunentzat, 1407/2013 Erregelamenduaren arabera, aurreko atalean azaltzen diren izaera orokorreko mugaketez gain, aplikagarriak izango zaizkio honako hauek ezarritako diru laguntzen mugaketa:

- a) 1407/2013 Erregelamendua.
- b) 360/2012 Erregelamendua.

Beraz, enpresatzat hartzen diren onuradunei aplikagarriak izango zaizkion diru laguntzen mugaketak 1407/2013 Erregelamenduaren 3.2 eta 3.3 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriko dira:

- ✓ Enpresa bakar bati emango zaion minimis diru laguntzen guztizko zenbatekoa ez da 200.000 euro baino gehiago izango, aurreko azken bi zerga ekitaldi eta diru laguntza eskatzen den ekitaldiko edozein alditan.
- ✓ Besteren kontura errepideko salgaien garraioan diharduen enpresa bakar bati emango zaion minimis diru laguntzen guztizko zenbatekoa ez da 100.000 euro baino gehiago izango, aurreko azken bi zerga ekitaldi eta diru laguntza eskatzen den ekitaldiko edozein alditan.

Minimis diru laguntza hauek ezin izango dira erabili errepideko salgaien garraioa ibilgailuak erosteko.

- ✓ Besteren kontura errepideko salgaien garraioan diharduen enpresa bat izateaz gain, beste lan batzuetan ere badihardu, 200.000 euroko gehieneko muga aplikatzen zaiona, enpresa horri gehieneko mugaketa hori aplikatuko zaio, baldin eta bitarteko egokien bidez bermatzen bada jardueren banaketa edo kostuen ezberdintasuna, errepideko salgaien garraioari lotutako jardueraren aldeko diru laguntza zatia ez da 100.000 euro baino gehiago eta inolako minimis diru laguntzarik ez da erabiltzen errepideko salgaien garraioa ibilgailuak erosteko.

6.4. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasun erregimena

Xede bera izanik, beste erakunde publiko edo pribatu batzuek eman ditzaketen diru laguntzak bateragarriak izango dira EEEk programa honetan ematen direnekin, baldin eta horien zenbateko osoak kostu lagungarriaren % 50 gainditzen ez badu, erakunde onuraduna enpresatzat hartzen den kasuetan, 1407/2013 Erregelamenduaren eta 360/2012 Erregelamenduaren arabera, edo % 80 hartzen ez bada.

Diru laguntzen konkurrentzia aipatutako ehunekoak gaindituz gero, EEEk emango lukeen diru laguntzaren zenbatekoa murriztuko litzateke, ehuneko horiek ez gainditzeko, aldeaz edo guztiz errebokatzeko dagokion ebazpen baten bidez zehaztuko dena, diru laguntza ordaindu aurretik emango dena.

6.5. Diruz lagunduko diren jardueren kontratazioa edo azpikontratazioa hirugarrenekin

- a) LGSen 29. artikuluan eta RGSen 68. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, onuradun batek azpikontratatzeko duela ulertuko da honako egoera hau gertatuz gero: diru laguntzaren xedea den jardueraren zati baten edo jarduera osoaren gauzapena hirugarren batekin hitzartzen badu. Diruz lagunduko den jarduera aurrera eramateko onuradunak berak egingo dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik kanpo geratuko da.



Nolanahi ere, hirugarrenen kontratazioa edo azpikontratazioa diruz lagunduko den jardueraren zenbatekoaren % 100 izan daiteke; diruz lagunduko diren jardueren kontratazio edo azpikontratazioaren aplikazioari dagokionez, goraxeago aipatutako 29. eta 68. artikuluetan xedatutakoa beteko da.

- b) Sektore Publikoaren Kontratuen Legean (SPKL) aurreikusten denaz haratago, eta lizitazioa prozedura ez bada izan SPKLen arautzen den moduan, gutxienez hiru (3) eskaintza eskatu beharko zaizkie hornitzaile ezberdinei, laneko konpromisoaren kontratazioa gauzatu, zerbitzua egin edo ondasuna eman aurretik, salbu eta, haren ezaugarri bereziengatik, merkatuan nahiko erakunderik ez baldin bada zerbitzua egiteko, edo salbu eta gastua egiten baldin bada diru laguntza eman baino lehen.

Aurkeztuko diren eskaintzen arteko aukeraketa, funtsean, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak kontuan hartuta egingo da, eta aukeraketa espreski justifikatuta geratu beharko da, baldin eta aukeratua ekonomikoki abantailatsuena ez bada.

7. Bideratzeko kudeaketa eta prozedura

39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri eta **Administrazio Elektronikaz** diharduen otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren arabera (aurrerantzean **21/2012 Dekretua**), laguntza programa honi lotutako espedienteen bideratze edo izapidetze guztiak (eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketa eta gainerako kudeaketak), horretarako berariaz diseinatutako aplikazio informatikoa erabili beharko da. Aplikazio hori EEEren webgunean dago eskuragarri, helbide honetan: <https://gestionayudas.eve.eus/solicitud>

Diru laguntzak eskatzea edo bideratzearekin zerikusia duten edozein izapide edo dokumentu aplikazio informatika horretaz eginez gero, era elektronikoan, sinadura elektronikoa aitortu bat eduki beharko du, 21/2012 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Eskabidea osatugabea, akatsekin egongo balitz, edo oinarri hauetan eskatzen dena bete ezik, hamar (10) egun balioduneko epea emango litzaioke interesdunari zuzentzeko edo eskatzen zaizkion dokumentuak aurkezteko, horretarako bidaliko zaion jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita, eta hori egin ezean, eskabidea bertan behera utziko zaio, aurretiaz emango den ebazpen baten bidez, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideaz diharduen 39/2015 Legearen 21. artikulua arabera xedatutako ebazpena, hain zuzen ere.

Eskatzailearen batek eskaera aurrez aurre edo presentzialki aurkeztuz gero, ezarritako bide elektronikotik kanpo, eta izatez behartuta dagoenetik at, interesdunari eskatuko zaio zuzentzeko, eta era elektronikoan aurkezteko. Ondorio hauetarako, eskaeraren aurkezpen data edo eguntzat joko da zuzenketa egiten den eguna.

8. Diru laguntza eskatzeko prozedura

Diru laguntzaren eskabidea eta berarekin batera bidali behar den dokumentazio tekniko-administratiboa **7. oinarrian** azaltzen den aplikazio informatikoaren bitartez egingo da, eta **3. oinarrian** adierazten den epearen barruan.

Diru laguntza programa indarrean egongo den bitartean eskatzaileek behar beste laguntza eskaera egin ahal izango dute, eta egokitzat jotzen duten irismenarekin; beraz, **4. oinarrian** adierazten diren jardueren multzoari begira eska daitezke diru laguntzak, baita horietako bakar bati begira ere.

EEEK era automatikoan egiaztatuko ditu honako hauek: NANA, zerga betebeharrak ordainduta daudela adierazten duten egiaztagiria eta Gizarte Segurantzaren ordainketak eginak dauden dokumentuak. Hala ere, onuradunak espreski uko egin ahalko dio onarpen inplizito horri diru laguntza eskabidean; horrela eginez gero, kasuan kasu eskatzen zaion egiaztagiria edo dokumentua aurkeztu beharko du, 39/2015 Legaren 28. artikulua 2. paragrafoaren arabera.



Diru laguntza eskaera egiteko, jarduera mota bakoitzeko, aplikazio informatikoaz formalizatu eta aurkeztu beharreko dokumentazioa hauxe da:

a) Diru laguntza eskabidea. Dokumentu honetan eskatzailearen datu orokorrak, diru laguntza eskatzea ekarri duen jarduera mota, haren kokalekua eta haren inguruko datu tekniko zehatzak azalduko dira. Era berean, aplikazio informatiko berberaz deklarazio hauexek formalizatuko dira:

- Eskatzailearen ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.
- Beste diru laguntza batzuk jaso izanaren ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.
- Enpresentzako minimis diru laguntzei lotutako deklarazioa eskaeraren egunean, 1407/2013 Erregelamenduaren arabera izaera hori daukaten eskatzaileei begira.

b) Dokumentazio administratiboa

- Diru laguntzaren eskatzaileak EEeri baimena eman ez dio era automatikokoan egiaztatze, sinatzailearen (legezko ordezkaria) NANaren kopia.
- IFKaren benetako kopia.
- Alkate edo legezko ordezkari kargu hautatzeko ziurtagiria.
- Hala badagokio, eskrituraren, estatutuen edo eratzeke ekitaldiaren benetako kopia, baita ahalduntzeke eskrituraren kopia edo ordezkatzeko dokumentu justifikagarria ere.
- Hala badagokio, egiaztatzen duen dokumentuaren edo ziurtagiriaren benetako kopia, toki erakundeen partaidetza (zuzena edo zeharkakoa) nagusia dela egiaztatzea ahalbidetzen duena, edo gehiengo gisa aritzen direla.
- Kontu korrontearen IBAN-a egiaztatzeke banketxearen ziurtagiria (24 digitu), haren titularra eskatzailea izan beharko da. Laguntzen programa honek eskatzen dituen baldintza guztiak betez gero, eta eskatzaileak onuraduna izateko egokiera bereganatu eta gero, kontu horretan sartu edo ordainduko da diru laguntza.
- Diru laguntzaren eskatzaileak EEeri baimena eman ez bazaio era automatikokoan egiaztatzeke, Foru Ogasunean zerga betebeharrak eguneratuak dituela ziurtagiri gaurkotua.
- Diru laguntzaren eskatzaileak EEeri baimena eman ez bazaio era automatikokoan egiaztatzeke, Gizarte Segurantzaren zerga betebeharrak eguneratuak dituela ziurtagiri gaurkotua.
- Hala badagokio, beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboen benetako kopia eskaeraren egunean.
- Interes ekonomiko orokorretako zerbitzuak ematen dituzten eskatzaileen kasuan, Administrazioak emandako lege ekitaldia, araua edo kontratua, zerbitzua emateko enpresa horri esleitu zaiola egiaztatuz.

c) Dokumentazio teknikoa

- Memoria tekniko-ekonomiko deskribatzailea, diru laguntza eskatzen den azterlan motaren irismen zehatzarekin, jarduera mota bakoitzari dagokion irizpide teknikoa kontuan hartuz, **4. oinarrian** azaltzen den moduan.

Dokumentu guztiak PDF formatuan aurkeztuko dira.

EEEk diru laguntza eskaera behar bezala aztertzeke, beharrezkotzat jotzen dituen informazio eta dokumentu osagarriak eska diezazkioke eskatzaileari.



9. Ebazpena, komunikazioa eta publizitatea

Diru laguntza emateko prozedura lehia edo konkurrentzia jarraitua izango da, eta, beraz, eskabideak aurkezten diren hurrenkeraren edo ordenaren arabera aztertu eta bideratuko dira espedienteak, eta modu egokian formulatuak eta beteak egongo diren heinean eta hurrenkeran bideratuko dira.

Eskabidea akastuna izanez gero, eta konpondu beharko balitz, edo eskatzaileak espedienteari beste dokumentu batzuk gehituko balizkio, ebazpena emateko konkurrentzia datatzat joko da eskaera erabat beteta eta zuzena geratzen den eguna.

EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak ebazpena eman eta modu elektronikoan (**7. oinarrian** azaltzen den aplikazio informatikoaren bitartez) helaraziko dio eskatzaileari jakinarazpena sei (6) hilabeteko gehieneko epean, diru laguntza eskaera, osoa eta zuzena, aurkezten den egunetik kontatzen hasita (39/2015 Legearen 21.2 artikulua). Epe hori igaro ondoren, eta ebazpen zehatzik jasotzen ez badu, eskatzaileek ulertu beharko dute beren diru laguntza eskabidea onartua izan dela, 39/2015 Legearen 24.1 artikuluan xedatzen den bezala.

Ebazpenean honako hau azalduko da: (i) diru laguntzaren xedea den jarduera, (ii) haren zenbatekoa (kantitate gordina, onuradunaren izaeraren ondoriozko zerga-betebeharrei utzi gabe), (iii) interesekoak izan daitezkeen beste alderdi batzuk eta (iv) eskabideari ezezkoa emanez gero, haren arrazoiak.

Ebazpen horren kontra, prozedura administratiboari amaiera ematen diona, eskatzaileek hautazko birjartze errekurtsioa jar dezakete EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren aurrean hilabeteko epearen barruan, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa Bilbon dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Hori guztia, 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluek diotena betez eta uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluekin bat etorritik; hain zuzen ere, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena (aurrerantzean **29/1998 Legea**).

Diru laguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, betiere onuraduna izateko diru laguntzen araudiek ezartzen dituzten gutxieneko betekizunak babestuz, diru laguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezake, diru laguntza arautzearen inguruko legeriak xedatzen duenarekin bat etorritik (LGEen 19.4 artikulua eta 1/1997 Dekretu Legegilearen 49.2 artikulua).

Azkenik, 19/2013 Legeak dioenarekin bat etorritik, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa (aurrerantzean **19/2013 Legea**) eta RGSa, EEEk bere Gardentasun Atarian eta EHAAn argitaratuko ditu emango diren diru laguntzak; baita legeak eskatzen dituen datuak ere azalduko dira bertan.

10. Diru laguntzak ordaintzea

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta Instituzionalak, bere erakunde autonomiadunek eta/edo EEEk emandako izaera bereko diru laguntzak itzultzeko dauzkaten onuradunek ezin izango dute laguntzen programa honek ematen duen diru laguntzarik jaso, baita zerga betebeharrenak eta Gizarte Segurantzarenak eguneratu gabe badituzte ere.

Horrelako kasuetan, aztertu egingo da itzuli beharreko diru laguntza zer egoeratan dagoen, borondatezko aldian edo bide betearazlean. Onuradunek diru laguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela kontuan hartzeko, hauxe izango da irizpidea: diru laguntza horiek emandako administrazioarekiko zorrik ez izatean epealdi betearazlean diru laguntzak itzultzeari dagokionez, edo onuradunei zein elkarte laguntzaileei premiamendu-bidea ezartzea edo aurrera eramaterik ez dagoen kasuetan, borondatezko aldian zorrak ez ditu kontuan hartu. Era berean, onuradunek diru laguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela kontuan hartuko da zor horiek geroratuta edo zatikatuta badaude, edo bertan behera uzteko erabaki bada, itzultzeko dagokion ebazpena aurkaratuz gero (RGSen 21. artikulua).

Aurkeztuko den jarduera (edo jarduerak) bukatu ondoren, EEEk emango duen diru laguntzaren ordainketa, onuradunak horretarako adierazitako kontu korrontean egingo da. Hori egin aurretik,



justifikatu beharreko dokumentazio guztia aurkeztu beharko da, diruz lagunduko jarduerak eta egindako gastuak egiaztatzeko.

Diruz lagunduko den jarduerari lotutako dokumentuen justifikazioa aplikazio informatika baten bidez egingo da, hasieran diru laguntza eskabidea bideratzeari begira erabiliko den aplikazio bera.

Ordainketa eskaria egiteko, justifikatu beharreko jarduera bakoitzerako, argia, espezifiko eta gaurkotua izan behar den honako dokumentazioa formalizatu eta aurkeztu beharko da. Dokumentu guztiak PDF formatuan aurkeztuko dira.

a) Ordaintzeko eskaria. Dokumentu hau aurkeztuta, azterlanaren amaiera eta bere fakturazio eta ordainketa osoaren komunikazioa adierazten da. Atal honetan deklarazio hauek ere formalizatuko dira:

- Onuradunaren ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.
- Beste diru laguntza batzuk eskatu/jaso izanaren ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.
- Enpresentzako minimis laguntzez deklarazioa justifikazioaren egunean, baldin eta eskatzaileek baldintza hori betetzen badute, 1407/2013 Erregelamenduaren arabera.

b) Dokumentazio administratiboa:

- Diru laguntzaren eskatzaileak EEeri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez badio, Foru Ogasunean ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
- Diru laguntzaren eskatzaileak EEeri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez badio, Gizarte Segurantzaren ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
- Kasuan kasu, beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboaren benetako kopia justifikazioaren egunean.

c) Dokumentazio teknikoa:

- Baldin eta kontratuak SPKLen xedatutako lizitazio prozeduraren baten bidez esleitu badira, kontratatzailearen profilari dagokion lizitazio iragarkia, kontratazioa egiteko oinarriko agiriak edo pleguak eta kontratua esleitzeko ebazpena.
- Gainerako kontratuatarako, kontratuaren zenbatekoa gorabehera, hiru (3) eskaintza eskatu beharko zaizkie hornitzaile ezberdinei, obrarako konpromisoaren kontratazioa gauzatu, zerbitzua egin edo ondasuna eman aurretik, salbu eta, haren ezaugarri bereziengatik, merkatuan nahiko erakunderik ez baldin bada gauzatu, zerbitzu egin edo hornitzeko, edo salbu eta gastua egiten baldin bada diru laguntza eman baino lehen.

Txosten justifikagarria, baldin eta esleitutako eskaintza eraginkortasun eta ekonomia irizpideak kontuan hartuta egin ez bada eta aukeratua ekonomikoki proposamen abantailatsuen ez denean.

- Onuradunaren eta enpresa kontratatzailearen artean formalizatutako kontratua, atal ekonomiko guztiak era zehatz eta banakatuan azalduta. Ez da onartuko inolako kontraturik atal ekonomiko gehigarriekin, azterlanaren atal ekonomiko nagusiak bereiztea galaraziz gero.
- Egindako azterlanak eta/edo auditoriak justifikatzeko faktura zehatzak (jatorrizko kopiak). Faktura horien jaulkitzailea onuraduna bera izan beharko da, **2.1 oinarrian** adierazten den moduan, atalka edo sailka banatuta eta ekonomikoki balioztatuta, **4. oinarrian** azaltzen diren epeen barruan. Era argian eta berezian identifikatu beharko da **4. oinarrian** azaltzen den jarduera bakoitza.
- Fakturak ordaindu izana justifikatzen duten agiriak, honako hauek identifikatzeko moduan: laguntzaren azken hartzailea; ordainketa jasotzen duen hirugarrena; ordainketa-data (balio-data); eta laguntzaren xede den proiektua identifikatzeko beharrezkoak diren datuak.



- Diru laguntza eskatu den azterlan motaren gaineko azken txostenaren benetako kopia. Ildo horretan, kontuan hartu beharko dira azterlanaren irismena (azterlanak jasotzen dituen jarduera espezifikokoak) eta **4. oinarrian** azaltzen den jarduera bakoitzerako adierazitako irizpide partikularrak:
 - Kanpoko argiteria publikoaren inguruko energia auditoriak.
 - Eraikinen eta energia instalazioen energia auditoriak.
 - Energia jasangarritasunaren aldeko jarduteko plana, 4/2019 Legearen esparruan.
 - Hiri mugikortasun jasangarriaren aldeko planak.
 - Energia jasangarritasunaren inguruko bideragarritasun azterlanak eta proiektuen prestaketa.

Ordaintzeko eskaera eta dokumentazioaren aurkezpena ekitaldi bakarrean eta bere osotasunean egingo da onuradunaren edo legezko ordezkariaren aldetik. Hartara, ordaintzeko eskaera osatu gabe edo akastuna izango balitz, edo postaz zein aurrez aurre edo eskura aurkeztuz gero, hamar (10) egun balioduneko epea emango litzaioke eskatzaileari zuzentzeko, zuzentzeko bidaliko zaion idazkiaren bidez jakinarazia, diru laguntzaren onuradunak horren berri emateko jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita (39/2015 Legearen 68. artikulua).

Goraxeago adierazten den dokumentazio justifikagarri hori guztia jasotzeko epea ez da inola ere luzatuko EEEn aldetik.

Dokumentazio justifikagarri hori guztia dagokion epean aurkeztu ezean, itzularaziko zaio zenbatekoa eta LGSen ezartzen diren gainerako erantzukizun guztiak eskatzea ekarriko du.

Aipatutako dokumentazio hori guztia jaso ondoren, aztertzeari ekingo zaio, eta behar bezala izanez gero, diru laguntza ordaintzeko izapideari hasiera emango dio EEK. Aurkeztutako dokumentazio justifikagarria aztertu eta gero, eta azken diru laguntzaren zenbatekoa hasieran emandakoa baino txikiagoa izan behar dela egiaztatuz gero, diru laguntza alde ezetzatzeko espediente bat abiarazteari ekingo zaio. Kontrara, honako egoeraren bat gertatuz gero:

- Eskatutako dokumentazio guztia ez da epearen barruan aurkezten;
- Diru laguntza jasotako jarduera burutu izana ez egiaztatzea, haren fakturazioa eta ordainketa hamabi (12) hilabeteko epean, diru laguntza ematen zaion jakinarazpena jasotzen denetik.
- Egindako azterlanak eta auditoriak ez izatea gutxieneko kalitatea edo eduki egokia, horiek egiteko aplikagarriak diren araudiek eskatutakoaren arabera.
- Oinarri hauetan eta/edo diru laguntzez diharduen legerian ezartzen diren baldintzaren bat ez da betetzen;

Goiko kasuren bat gertatuz gero, EEK diru laguntza osorik errebokatze espedienteari ekingo dio.

Diru laguntza errebokatuz gero, diru laguntza kobratzeko eskubidea deuseztatuko litzateke, RGSen 89. artikuluan xedatzen denari jarraiki eta LGSen 42. artikuluan horretarako ezarritako prozeduraren bitartez.

11. Diru laguntza jasotako espedientearen eta jardueraren egiaztatze dokumentala

EEK beharrezkotzat joko duen dokumentazio osagarri guztia eskatu ahal izango du espedientearen ez bada, EEEntzat ezinbestekoa izanez gero, betiere diruz lagundutakoa fiskalizatzeko zereginei loturik.

Informazioa eskabidean aurkeztu den dokumentazioarekin kontrastatu ondoren, eta hasieran emandako diru laguntza kantitatea txikiagoa izan behar dela, edo ez dagokiola diru laguntzarik jasotzea ondorioztatuko balitz, kasuan-kasuan, EEK diru laguntza alde edo erabat errebokatze espedientea egingo du eta, hala badagokio, zati bat edo kantitate osoa itzultzeko eskatuko luke, legezko beste bide batzuk hartzeko eta zigorrak aplikatzeko eskubideari uko egin gabe.



12. Onuradunen betebeharrak

Deialdi edo programa honen bitartez arautzen diren diru laguntzen onuradunek, ezinbestean, betebeharrak izango dituzte:

- a) LGSen 14. eta 46. artikuluetan eta 1/1997 Dekretu Legegilearen 50.2 artikuluan xedatutakoak.
- b) Emandako diru laguntza onartzea. Diru laguntza eman zaiola jakinarazten dion agiria jaso eta hamabost (15) eguneko epean berariaz eta idatziz uko egiten ez badio, onartu egin duela ulertuko da, deialdian zein ebazpenean ezartzen diren baldintza ekonomikoen eta gainerakoen arabera, baita diru laguntza deialdi horren arabera ere.
- c) Diru laguntza zertarako eman zaion, horretarako erabiltzea.
- d) Kontrol Ekonomiko Bulegoari eta Kontu Publikoen Euskal Auzitegiari ematea eskatu ahal dioten informazio zehatza eta guztia, laguntzen programa honen arabera, diru laguntza hauek kontrolatzeko dituzten zereginei jarraiki.
- e) Helburu bera duen proiektua egiteari begira, beste administrazio, erakunde publiko edo pribatu bati eskatutako edota horiek emandako diru laguntzaren berri ematea EEE Energiaren Euskal Erakundeari.
- f) Garatuko den egitasmoen lotutako instalazioek indarrean dagoen legeria edo araudia bete beharko dute, eta haien osagaiek dagokion erakunde eskumendunaren homologazioa eduki beharko dute. Beraz, onuradunak onartzen du egitasmoak bete egingo duela aplikagarria izan dakioken legeriaren alderdi guztietatik: teknika, hirigintza eta gainerako ezaugarriak kontuan hartuta.
- g) Diru laguntza ematearekin zerikusia duen edozein aldaketa objektiboa zein subjektiboaren berri ematea EEERI.
- h) Eman daitekeen diru laguntza ondo erabiltzen dela egiaztatzeko, EEER eska diezaiokeen informazio guztia emango du onuradunak.

Egingo diren informazio eta komunikazioaren inguruko neurri eta jardura guztiek eskatzen dute onuradunaren ezagutza, Energiaren Euskal Erakundearen laguntzari dagokionez. Horretarako:

- Paperan, webgunean, App-en edo ikus-entzunezkoan egingo den jardura orok eduki beharko du berariazko aipamen edo erreferentzia hau: proiektu hau diruz lagundu da Energiaren Euskal Erakundearen laguntza programaren barruan (Euskadiko toki herri administrazioaren energia jasangarritasuna hobetzeko azterlanak eta auditoriak egiteko). Euskarri horietan Energiaren Euskal Erakundearen logotipoa jarriko da. Energiaren Euskal Erakundearen logotipoa eskuragarri izango da EEERen webgunean, formatu bektorialean eta gaurkotuen egongo den azken bertsioan.
 - Hedabideetan diruz lagundutako jardura sustatzeko komunikazio jardura guztiek eduki beharko dute berariazko aipamen edo erreferentzia bat, jardura horrek Energiaren Euskal Erakundearen diru laguntza jaso duela nabarmentzeko eta komunikazio jardura horren berri emango zaio EEERI.
- i) Gauzatutako eta diruz lagundutako jardura ondoriozko informazioa EEERen eskura jartzea, haren emaitzak zabaltzeko xedez, alde biek elkar hartuta.



13. Ez betetzea eta dirua itzultzea

Jasotako diru laguntza osoaren edo zati baten itzultzeari ekingo zaio eta diru laguntzen gaietan dagozkion berandutze-interesak eskatuko zaizkio diru laguntza ordaintzen zaion unetik edo egunetik itzulketa egiteko erabakia hartzen den data edo egunera arte, LGSen 37. artikuluan xedatutakoa betez. Itzulketa aldez edo partzialki egin beharko den kasuetan, aipatutako LGSen 37.2 artikuluan xedatutako graduazio irizpideak kontuan hartuko dira.

Deialdi edo programa honetan ezarritako eskakizunak, aplika daitezkeen gainontzeko arauak edo diru laguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzak bete ezik, dagokion ez betetze espedientea ireki, eta diru laguntzak ezeztatu eta itzuli egin beharko litzaioke EEeri, diru laguntzen gaietan dagozkion berandutze-interesekin batera. Hori guztia, honako legeriak xedatutakoa betez: 1/1997 Dekretu Legegilean xedatutakoari jarraiki eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren II. idazpurua, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura emandako diru laguntzen bermeei eta itzulketei buruzko araudi orokorra arautzen duena, eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete behar dituzten eskakizunak, arautegia eta betebeharrak finkatzen dituena. Nolanahi ere, horrek ez du salbuesten bestelako zehapen eta lege-egintzetatik.

Errebokatzeko espedienteak hasarazteko eta ebazteko eskumena, eta, hala dagokionean, diru laguntza aldez edo osorik itzularazteko, EEEko zuzendari nagusiak du.



14. Informazio klausula eskatzaileei

DATUAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA (Datuen Babesteari buruzko 2016/679 EB Erregelamendua betez)	
Tratamenduaren erantzulea	ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE) IFZ: Q5150001E Helbidea: Urkixo zumarkalea 36, 1. solairua, 48011, Bilbao (Bizkaia) Tel.: 94.403.56.00 e-maila: contacto@eve.eus kontaktua DPD: dpd@eve.eus
Helburua	Zure laguntza eskaera egikaritu eta kudeatzea, eta, bidezko bada, zure emakidaren ondorioz ezartzen den harremana egikaritu eta kontrolatzea. EEErekin harremanetan jartzeko hauta-hizkuntzari dagokionez, bete beharreko baldintza dena, datua Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza gaian ezarritako politika eta estrategiekin bat etorri erabiliko da, eta monitorizazio eta estatistikei lotutako xedeekin bakarrik. Genero datuari doakionez, betetzea boluntarioa dena, datua Eusko Jaurlaritzaren berdintasun gaian ezarritako politika eta estrategiekin bat etorri erabiliko da, eta monitorizazio eta estatistikei lotutako xedeekin bakarrik.
Tratamenduaren legitimazioa eta kontserbazioa	Interesdunaren baimena, eskaera aurkeztearekin eta dagozkion eranskinekin batera adierazia. Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaz egindako xedearekin ere, edo EEERI emandako ahalmen publikoak jarduteko. Informazioaren kontserbazioa: eskaera aztertzeke epearen eta aplikatu behar zaizkion lege-epeen barruan. Laguntza ematen bada, datuak emakida-espeditan bilduko dira, eta emakida indarrean dagoen bitartean kontserbatuko dira, eta, ondoren, aplikatu beharreko lege-epeen barruan.
Lagapenen hartzaileak	Alor horretan eskumenekoak diren kontroleko erakunde eta agintari autonomiko edo lokalak.
Interesdunen eskubideak	Datuetan sartzeko, datuak zuzendu, ezereztu eta mugatzeko, eramangarritasuneko edo datuen aurka egiteko eskubideak baliatu ahalko dituzu EEERA (DPD kontaktua) « <i>datuak babesteko eskubideak baliatzeari</i> » buruzko idazkia bidaliz, diru laguntza gaian araudietan egikaritzeko moduan izanez gero.
	Emandako baimena kentzeko eskubidea dute interesdunek. Interesdunek Kontrol Agintarien aurrean erreklamatzeko (www.avpd.eus Datuak Babesteko Euskal Bulegoa eta www.agpd.es Datuak Babesteko Espainiako Agentzia) eskubidea dute.
<p>Eskatzaile edo onuradun orok konpromisoa hartzen du bere laguntza-eskaeran adierazitako proiektuaren kudeaketarekin, eta, bidezko bada, ondorengo egikaritzapenarekin, lotutako edozein pertsona fisiko edo juridikoren edozein datu pertsonal EEERI eman aurretik, dagokion pertsona fisiko edo juridiko horri alde aurretik adierazitakoaren berri emateko eta EEERI datu pertsonalak modu egokian lagatzeko aplikagarriak diren gainerako betekizunak betetzeko.</p> <p>Ordezkaritza gauzatzeko, ordezkariek bere ordezkatuaren datu pertsonalak konfidentziaztasun osoz tratatu eta sarbidea izango du eta dagozkion segurtasun neurri guztiak, prozedurari lotutako kudeaketa egiteko bakarrik eta bestelako zereginetarako erabilera debekatuta. Era berean, ezin izango dio besteri jakinarazi, ordezkatuaren berriazko baimena izan ezik. Konpromiso hauek era mugagabea hartzen dira, are ordezkapena amaitu ondoren. Ordezkariek segurtasunarekiko kezka bat izanez gero, EEERekiko datuen komunikazioei dagokienez, berehala jakinarazi beharko lioke EEERI.</p>	



15 **Azken xedapenak**

1. EEEren erabakiak izaera administratiboa du, eta administrazioarekiko auzitegiei dagokie EEEk kudeatzen dituen diru laguntzekiko jurisdikzio-eskumena.
2. Onuradunak, eskabidearen kudeaketan, aurkeztuko duen dokumentazioan edo informazioan egon daitezkeen akatsen edo errakuntzen erantzukizuna harena baino ez da izango, baldin eta eragiten badie zuzenean diru laguntza eskaera aintzat hartu edo ez hartzeari eta/edo EEEk eman beharko duen diru laguntzaren kantitateari. Horrexegatik, hain zuzen ere, diru laguntza emateko ebazpenean kontuan hartzen den gastuan egon litezkeen aldaketak, gastu efektiboaren gehikuntzan, ez dira inola ere berrikusiko, zenbatekoa areagotzeari begira.
3. Oinarri hauetan azaltzen diren diru laguntzei honako honetan xedatutakoa aplikatuko zaie:
 - 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorra.
 - 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorri buruzko Arautegia onartzen duena.
 - 1/1997 Legegintza Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Jasangarritasunari 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa.
 - Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko (UE) 1407/2013 Araudia, minimis laguntzez diharduen Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioari dagokionez.
 - Batzordearen 2012ko apirilaren 25eko (UE) 360/2012 Araudia, minimis laguntzez diharduen interes ekonomiko orokorrerako zerbitzuak ematen dituzten enpresentzat Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioari dagokionez.
 - 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideaz diharduena.
 - 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena.
 - 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa.
 - Aplikagarri izan daitezkeen tokiko, autonomi erkidegoko, estatuko edo Europako beste edozein araudi.